

# ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA

## JON ZABALETA

### AIETE KULTUR ETXEA

2014 -ABENDUA 17- MARTXOA 22 -2015

Ilustratzailearen txokoa, Aiete Kultur Etxean

2012ko urrian Aiete Kultur Etxean **Ilustratzailearen Txokoa** inauguratu zenetik bertatik igaro dira Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Elena Odriozola, Antton Olariaga, Maite Gurrutxaga, Aitziber Alonso, Jokin Mitxelena eta Estibalitz Jalón. Hurrengo artista Jon Zabaleta ilustratzailea izango da.

Jon Zabaleta gure euskal ilustratzaile "klasiko" bat da, euskarazko haur literaturan izen saihestezina.

IFK-CIF  
020005  
411  
6634n  
VI  
2009-11



## Biografia

Jon Zabaleta, Hernanin jaio zen 1950ean. Lehenengo eskolan hasi zen marrazten.

Mutikotan festa egunetarako pankartak kartelak eta irudiak egiten zituen. Gaztetan, muralak, karteladak eskuz egindakoak, txiste grafikoak aldizkarietarako. Garai hartako gazte-elkarteetan, euskararen aldeko ekimenetan, irudiak eskaintzen zituen berak.

1968an, delineante ikasketak burutu gabe utzi eta inprimategi batean hasi zen lanean.

1971n Debako Arte Eskolan sartu zen. Oteizak bultzatutako Eskola Experimentalak hura arte aplikatuetan berrikuntza eta herrigintza txertatzeko ahalegin bat izan zen, han sortzen ari ziren gau eskola, kultur aste, ikastola eta kultur elkarten unibertso txikian eragin handia izan zuena. Zabaletak, bere iruditeria propioaren oinarriak Deban jarri zituen: pospoloak eta barraskiloak, elefanteak eta ilargiak.

Debako eskola 1974an utzi zuen, eta berehala sortu zitzaizkion enkarguak. Harrigarriak gertatu ziren euskal edizioaren testuinguruan bere irudien freskotasuna eta baliabide material eskasei ateratzen zien etekin plastikoa.

Jon Zabaletaren hastapenak estuki lotuak daude euskarazko kultur industriaren lehen urratsekin, garaiko euskal prentsa apurraren ahaleginekin. Euskal kulturaren sareak zabaltzearekin batera ondu zen, eta euskal komiki berriaren aintzindarietako bat bihurtu zen. Posta-irudiak, euskararen aldeko mugimenduen edo presoen laguntza komiteen diru beharri erantzuteaz gain, Olentzeroren irudia sustatzen lagundu zuen.

70. hamarkadaren erdialdean *Zeruko Argia* eta *Komikia* gehigarrian agertu ziren bere lanak, batez ere komikiak. Garai hartan *Berriak*-en "Xua, Taka eta Klok" izeneko tirak publikatu zituen. 1976an *Aberri Egunaren Ipuia* koadernoak publikatu zuen Baionako *Hitz* aldizkariko gehigarrian. Harrezkero leku askotan kolaboratu du, tartean *Eginen*, *Euskaldunon Egunkarian*, *Garaian*, *Haben*, *Euskadi Siouxen* edo *Ipurbeltzen*.

Urte haiek bizi-bizirik izan ziren diseinu grafikoan eta irudizko komunikazioan. Bere garaiko irudigile euskaldunak beste herrialdetako joerak ere jarraitzen zituzten, eremu anglofonokoak batzuk (Zulueta, Egillor, Zabala...), eremu frankofonokoak beste batzuk (Zabaleta, Olariaga,...).

Garai hartan azaldu zen Juan Zabalo "Txiki: marrazkilari eta umoredun" izeneko liburua. "Txiki" Zabaloren marrazkera sintetikoa zen, marra itxi ondo zehaztua zeukan eta kolore basikoen erabilpenarekin emaitza zoragarria lortzen zituen. Gerra aurreko marrazkilari handi honekin lotzen du euskal marrazkigintzaren tradizioa, besteak beste Jon Zabaletak. Modu berean, Jonek lerroak marrazten zituen emaitza adierazgarriak lortuz. Gai sozio-politikoak, ia oharkabean, aitzaki bezala edo konpromiso bezala erabiltzen zuen, gertatzen zena eta gertatzen zitzaiona, kronista

modura, kontatzeko. Jonek gaitasun aparta du bere inguruan eta berean bere baitan gertatzen dena doitasunez kontatzeko.

80ko urteetan, demokraziaren erakundetzearekin, Jon Lesakako baserri batera erretiratu zen, haur liburuen ilustrazioetara mugatuz.

Lertxundi, Balzola, Atxaga, Landa, eta beste hainbat autore inportanteren ipuinen irudigilea izan da. Urrundik bizi izan zuen ordea euskarazko haur literaturaren lehen boom industrial hura. *Ipurbeltz* izan liteke, komikigintzan, egonkortasunaren apustua egin zuen aro heldu berriaren ikurra. Luzaro kolaboratu izan du Jon Zabaletak *Ipurbeltzen*, orri gogoangarriak eskaini izan ditu bertan, baina bolada hura bazter batetik bizi izan zuen.

## Jon Zabaletaren lanak

Jon Zabaletaren lanaren ibilbidea oparo eta askotarikoa da, diskoen portadak, kartelak eta pegatinak diseinatu ditu. Horrez gain, ume eta gaztetxoentzako 100 bat liburu ilustratu ditu.

Umeentzako eginak diruditen arren, bere marrazkietan politika, sexua edo ekologia bezalako gaiak landu izan ditu. Horrez gainera, umore grafikoa, komikia eta bestelako marrazkiak ere argitaratu ditu hamar bat aldizkarietan eta bi egunkarietan.

Zabaletak hogeit hamar bat erakusketatan parte hartu du azken urteetan. Gaur egun marrazten eta maisu lanetan dihardu, gure historiaren lekuko den artista aparta hau.

2009-11  
VI  
6634n  
41  
020005  
IFK-CIF

Donostia Kulturak, artista honen lana eta bizipenak jasotzeko Jon Zabaleta elkarrizketatu eta grabatu egin du ondoko bideoan:

<http://www.donostiakultura.tv/media/ilustratzailearen-txokoa-jon-zabaleta-aiete>

<http://www.donostiakultura.tv/media/jon-zabaleta-elkarrizketa-entrevista>

IFK-CIF  
020005  
411  
6634n  
VI  
2009-11